

Erf.: Gaztedi Busturialdea lankidetza hitzarmena 2017 2019  
Tx. zk.: 17/

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

## **TXOSTENA**

### **Planteatutako gaia**

Eskualdeko beste udalerriekaz batera, Bizkaiko Foru Aldundiagaz Gaztedi Busturialdea 2017-2019 Lankidetza hitzarmena sinatzea.

### **Nork eskatu dauen txostena**

Ofizioz.

### **Argudio juridikoak**

#### **a) Aurrekariak**

Lehenengoa: Bermeoko Udalak, 2013ko urriaren 31n izandako Osoko Bilkurean, "Gaztedi Busturialdea 2013/2014" lankidetza hitzarmena onartzea erabagi eban.

Bigarrena: Bermeoko udalak, 2014ko arazoaren 21ean, "Gaztedi Busturialdea" lankidetza hitzarmenaren luzapena sinatu eban 2015. Urterako.

Hirugarrena: 2016ko maiatzaren 30ean, udal Osoko Bilkureak, Bermeoko Udal "Udal Gaztedi" foru erakundeko kide izatea onartu eban.

Laugarrena: 703. Zenbakidun Alkatetza Dekretuz Eskualdeko beste udalerriekaz batera, Bizkaiko Foru Aldundiagaz Gaztedi Busturialdea 2017-2019 Lankidetza hitzarmena sinatzea onartu zan, Osoko Bilkureak berrestearen kalte barik.

#### **b) Oinarri juridikoak**

Lehenengoa: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. Artikuluan honakoa dino: "1.- Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian

xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: (...) 36) Gazteria politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea”.

Bigarrena: Toki Erregimena arautzen dauen 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen dau:

5. artikuluan: “Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes”.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen dauen 3/2011 EDLaren 4. artikulua:

*“Negocios y contratos excluidos:*

1. Están excluidos del ámbito de la presente Ley los siguientes negocios y relaciones jurídicas:  
(...)d) Los convenios que, con arreglo a las normas específicas que los regulan, celebre la Administración con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su objeto no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales”.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2017ko maiatzaren 26an.

Karmele Muñoa Arrigain  
Behin-behineko Idazkaria